


Txikizkako sektorearen salmentek % 1,7 egin dute gora Euskal AEn, 2023ko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmentek % 0,6 egin dute gora

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak % 1,7 handitu ditu salmentak, 2023ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegi-eraginak atera ondoren eta prezio finkoetan, Eustaten datuen arabera. Salmenten urte arteko hazkuntza, gasolina-zerbitzuguneak kontuan izan gabe, % 1,5koa izan da.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaro-eragin egokiak kenduta, salmenten indizeak % 0,6 egin du gora 2023ko lehen hiruhilekoan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaietako salmentek, prezio finkoetan, % 0,2 egin dute gora, 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. *Gainerako produktuen* sektorean, salmenten urte arteko igoera % 2,6koa izan da, 2023ko lehen hiruhilekoan. *Automobilgintzarako erregaiaren* sektorean, bestalde, salmentek % 5,1 egin dute gora, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2022ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, urtaro-eraginik gabe eta prezio finkoetan, *Elikagaien* eta *Gainerako produktuen* salmentek % 0,9 eta % 2,3 egin dute gora, hurrenez hurren. *Automobilgintzarako erregaiaren* salmentek, berriz, % 2,8 egin dute behera, hiruhilekoen arteko terminoetan.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2023/I

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	1,7	0,6	1,7
Araba/Álava	-3,2	-1,2	-3,2
Bizkaia	4,7	1,1	4,7
Gipuzkoa	-0,6	0,5	-0,6
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	0,2	0,9	0,2
Elikagaien saltoki espezializatuak	-2,9	-0,6	-2,9
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	1,6	1,3	1,6
Gainerako produktuak	2,6	2,3	2,6
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	4,6	-0,5	4,6
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	0,0	1,2	0,0
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	7,4	3,2	7,4
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	1,1	0,4	1,1
Automoziorako erregaia	5,1	-2,8	5,1
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe			
	1,5	1,7	1,5
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	1,0	-0,2	1,0

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/At(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2023ko Maiatzaren 9a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMIt)

Elikagaien sektoreko txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikagaietan*, *edarietan* eta *tabakoan espezializatutako* merkataritzaren salmentek (besteak beste, fruta-dendak, harategiak, arrandegiak...) behera egin dute, 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, % 2,9. *Elikagaiak*, *edariak* eta *tabakoa nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuan* (batez ere, supermerkatuak eta hipermerkatuak), berriz, % 1,6 handitu dira salmentak, urte arteko terminoetan.

Gainerako produktuen sektoreko txikizkako merkataritzaren barruan, *Beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako* sektorearen salmentek (hartan sartzen dira, besteak beste, kirol-produktuak, jolasak edo jostailuak) % 7,4 egin dute gora, aurreko urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. *Pertsonen ekipamenduetan espezializatutako* sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higienekoak), urte arteko hazkuntza % 4,6koa izan da, *Gainerako produktuak nagusi diren txikizkako merkataritza*

ez-espezializatuko sektorean (korrespondentzia edo Internet), % 1,1ekoa. *Etxeko ekipamenduan espezializatutako* sektorean (besteak beste, etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak), azkenik, salmentei eutsi egin zaie egonkor, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Lurralde historikoen arabera, 2023ko lehen hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko igoera izan du Bizkaian, % 4,7koa. Araban eta Gipuzkoan, berriz, % 3,2ko eta % 0,6ko jaitsiera izan da, hurrenez hurren.

Aurreko hiruhileko berarekin alderatuta, salmenten bilakaera positiboa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan; % 1,1eko eta % 0,5eko hiruhilekoen arteko hazkuntzak izan dira, hurrenez hurren. Hala ere, Araban % 1,2 egin dute behera salmentek, 2022ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Euskal AE osoan, 2023ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean enplegatuen kopurua % 1,0 igo da. % 0,2 jaitsi da enplegua, 2022. urteko laugarren hiruhilekoaren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren **% 93,5eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62